



LIBURUA

Zer da ama izatea?



EMAKUMEAGANDIK JAIKAK. AMATASUNA ESPERIENTZIA ETA INSTITUZIO GISA

EGILEA: ADRIENNE RICH
ITZULTZAILEA: MAIALEN
BERASATEGI CATALÁN

TXALAPARTA, 2020

AMAIA ALVAREZ URIA

2020ko apirilean kaleratu du Txalpartak Maialen Berasategi itzulitako eta Adrienne Rich poeta eta pentsalari feministak ia 50 urte lehenago idatzitako "amatasuna"-ri buruzko lan mardula. Egungo pandemiaren berrogeialdi betean, alegia. Hain justu, erdi mailako klaseko bikote heterosexualek egonkor batzuek erabaki zutenean umeak egiteko unea izan zitekeela.

Lau urtez ikertzen eta idazten jardun zuen Richek, ikuspegi feministatik amatasunaren gaia deseraikitzen eta hamar kapitulutan heldu dio horri: bere bizipen pertsonaletik abiatzen da hiru semeren ama izateak sorrarazi dizkion gatazka, kontraesan eta minak adieraziz. Horren ostean amatasunaren eta heterosexuallitatearen instituzioen arabera amaren betebeharrak zein den esplizitatzen du.

Segidan, aurrehistorian Ama Jainkosari egiten zitzaion gurtzaren eta patriarkatuak emakumeak eta amak kontrolatzeko sortutako arau eta zigorren berri ematen du medikuntza, literatura edo erlijio-testuetako pasarteak ekarri. Gainera, erditzeaz eta abortuari buruz dihardu, ama-semea eta ama-alaba harremanetan sakonduz. Amen biolentziarekin amaiera ematen dio liburuari.

Simone de Beauvoirren emakume izaerari buruzko saiakeratik 50 urtera begiratu dio ama izaerari egile honek, hain justu AEBetan diferentziaren feminismoa indartzen ari zen garaian. *Herstory* baten beharraz ari da, eta ahizpatasunaz, denak baikara alaba-ama; baina baita ama potentzial bezala hartuak garenok burua eta gorputza deskolonizatzeko eta kontzientzia hartzeari

buruzko premiaz ere.

Bere ustez, emakume guztiak gabil-tza "maitalanetan", hortaz, ama rola jotzen dugu. Ama direnen eta ez direnen arteko polaritatea faltsua dela dio, eta menpeko eta sufritzen nahi gaituen amatasunaren instituzioa suntsitzeko eta biziaren sorkuntza eta euskarria bestela eraikitze beharra aldarrikatzen du.

Iaz argitaratu zen *Salud feminista* lan kolektiboan gai honi beste begirada bat eman zioten, queer, trans eta crip ikuspegietatik osasun sexual eta erreproduktiboari eta gorputzaren subirnotasuna edo justizia erreproduktiboa kontzeptuak proposatuz. Baina bi lanak horrela laburtu daitezke: "Feminista izatea gorputzarekin etengabeko elkarriketa izatea da" (Marta Dillon). ●